



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 30a

53. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, aurrezki kutxei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumenaren babesa ziurtatzeko jarduketak abian jar ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorea susta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Elikagaien Bankuarekin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena ospatzeko programa burutu dezan, 2008an eta 2010ean onetsitako erabakietan ezarritako irizpideekin bat. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, murrizketa berririk eginez gero, ez ditzan uki Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politikako departamentuen kontusailak. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da burutzen gaineko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta diezaien etxea utzarazi zaien familiei alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi ahal izatea. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atmosferara isurtzen diren gas kantitateen neurgailuak jar ditzan. Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua. Mozioa erretiratzea (8. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, osasun laguntzaren ereduaren aldaketa eragile ezberdinekin adosteko eta negoziatzeko jarraitutako prozedurari buruzkoa. Galdera erretiratzea (9. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Legelari nagusiaren erabakia, 2012ko maiatzaren 23koa. Horren bidez, zenbait irizpide ezartzen dira pres-takuntzan dauden langileen kudeaketarako (10. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, aurrezki kutxei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, aurrezki kutxei buruzkoa.

Proposamen hori 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumenaren babesa ziurtatzeko jarduketak abian jar ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumenaren babesa ziurtatzeko jarduketak abian jar ditzan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak jotzen du ingurumenaren zaintza eta gure lurraldearen iraungarritasuna lehentasun bat direla. Hori dela eta, jotzen du nazioarteko itunak eta gure ingurumen legedia aplikatzerakoan egoki jokatzeari beharrezko baldintzak direla babes hori eragingarri bihurtzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren jarduketak egin ditzan ingurumenaren babes hori bermatze aldera, hori arriskuan jar lezaketen proiektuen ondorioak saihestuz edo ahal den guztian murriztuz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere jarduketetan joka dezan Europar Batasunean ezarri eta 20-20-20 estrategian finkatu diren konpromisoen arabera.”

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorea susta dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorea susta dezan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak sektore estrategikotzat jotzen du ikus-entzunezkoen sektorea, eta

sektore hori bultzatzeko asmoa duela adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bederatzi hilabeteko epean ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko “liburu zuri” bat presta dezan, egungo egoerari buruz egin beharreko diagnostikotik eta sektorearen beharrezko azterketatik abiatuta.”

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Elikagaien Bankuarekin.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Elikagaien Bankuarekin". Horren jatorria da Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Elikagaien Bankuarekiko lankidetzarako bideak eta baliabideak ezar ditzan, are akordioak edo hitzarmenak sinatuta ere, behar bezalako irismenarekin eta iraupenarekin, Nafarroako Gobernuaren eta Elikagaien Bankuaren arteko lankidetzarako esparrurik egokiena ezartze aldera."

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere konpromisoak bete ditzan Nafarroako Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartzeari dagokionez". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lehenbailehen sina dezan hitzarmen bat, Landa Garapen Iraungarrirako Plana abian jartze aldera, halako moduan non Foru Komunitateak behar dituen funtsak izanen baititu plana berehala betetzeko."

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena ospatzeko programa burutu dezan, 2008an eta 2010ean onetsitako erabakietan ezarritako irizpideekin bat.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena ospatzeko programa burutu dezan, 2008an eta 2010ean onetsitako erabakietan ezarritako irizpideekin bat." Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkeztutako mozio bat, 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena ospatzeko programa burutu dezan, 2008an eta 2010ean horretarako

aurkeztutako mozioetako erabakietan ezarritako irizpideekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak berriro dio historia-gileei dagokiela gertakariak zehaztea, eta bere errespetua eta esker ona adierazi nahi du, ildo horretan egindako ahaleginengatik.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea eta nahia dela Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrenaren ospakizuna ez dadila inolaz ere izan Nafarroako egungo herritarren arteko zatiketa eta desadostasuna eragiteko, baizik eta, gertatutakoa hobeki ezagutzetik abiatuta, bizitzea egokitu zaigun koiuntura zail honetan hobeki ekin ahal izateko gizarte garen aldetik ditugun erronka komunei."

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, murrizketa berririk eginez gero, ez ditzan uki Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politikako departamentuen kontusailak.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, murrizketa berririk eginez gero, ez ditzan uki Osasuneko, Hezkuntzako eta Gizarte Politikako departamentuen kontusailak"

Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 24an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da burutzen gaineko azterlan bat egin dezan.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak eta Bakartxo Ruiz Jaso andreak ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da burutzen gaineko azterlan bat egin dezan".

Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta diezaien etxea utzarazi zaien familiei alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi ahal izatea.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta diezaien etxea utzarazi zaien familiei alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi ahal izatea".

Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lege-aldaketak ez ditzan balia hartutako konpromisoak ez betetzea justifikatzeko".

Legebiltzarrak, 2012ko maiatzaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atmosferara isurtzen diren gas kantitateen neurgailuak jar ditzan.**

*LANDA GARAPEN, INDUSTRIA, ENPLEGU ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atmosferara isurtzen diren gas kantitateen neurgailuak jar ditzan?"

Legebiltzarreko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordeak, 2012ko maia-

tzaren 22an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2012ko maiatzaren 24an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dago-kionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen bete zezan Familia ugariei buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea garatzen duen ekainaren 21eko 38/2010 Foru Dekretua.

Mozio hori 2012ko martxoaren 22ko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, osasun laguntzaren ereduaren aldaketa eragile ezberdinekin adosteko eta negoziatzeko jarraitutako prozedurari buruzkoa.**

**GALDERA ERRETIRATZEA**

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2012ko maiatzaren 22an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, osasun laguntzaren ereduaren aldaketa eragile ezberdinekin adosteko eta negoziatzeko jarraitutako prozedurari buruzkoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko maiatzaren 7ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Legelari nagusiaren erabakia, 2012ko maiatzaren 23koa. Horren bidez, zenbait irizpide ezartzen dira prestakuntzan dauden langileen kudeaketarako.**

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua ezartzen duenez, "Nafarroako Parlamentuak zerbitzu berezietako egoeran deklaratu ahalko ditu haren menpeko funtzionario publikoak prestakuntzarako, hobekuntzarako edo ikerketarako jardueretan ari direnean, erregelamendu honetan jasotako kasuetan eta bertan ezarritako baldintzen eta araubidearen arabera".

Manu hori garatze aldera, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua onetsi zen Mahaiaren 1994ko ekainaren 21eko erabaki bidez. Erabaki hori, berriz, 2002ko ekainaren 4ko eta 2006ko otsailaren 16ko erabakien bidez aldatu zen.

Araudi horren zenbait alderdi osatu zituen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen aldi baterako kontratazioari buruzko Erregelamenduak, eta deiei dagokienez, prestakuntzako zerrendak egiteko deialdietan ezarritako irizpideek.

Araudi hori hobeki aplikatzeko, Zerbitzu Juridikoek galdetu behar izatea ekarri duten kasuak gertatu dira araudi hori aplikatzean. Esperientzia hori gogoan, ematen du komeni dela irizpide batzuk ezartzea, Zerbitzu Orokorrek argi izan dezaten nola aplikatu 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua kasu horietan.

Hartara, Parlamentuko Erregelamenduko 71.2 artikuluekin eta 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko azken xedapenetan lehenarekin bat,

### **ERABAKI DUT:**

**Lehena.-** Ondoko irizpideak ezartzea, aipatzen diren kasuetan nola jardun argitze aldera:

1. Prestakuntza, nahitaezko atsedean eta luzapen aldien zenbaketa.

Zerbitzu berezietako egoerak, gehienez ere, hogeita lau hilabete iraunen du, eta aldi batean edo gehiagotan osatu ahal izanen da. Aldi hori

bukatutakoan, funtzionarioa automatikoki itzuliko da zerbitzu berezietako egoera deklaratu ziotenean betetzen ari zen lanpostuko jarduneko zerbitzura, eta hori ez da eragozpen izanen hamabi hilabete gehiagorako dei dakion aurreikusitako luzapenera, baldin eta prestakuntza-aldirako beste funtzionario izangairik ez badago. Kasu horietan, funtzionarioak bere jatorrizko lanpostuan ematen duen denbora zenbatuko da Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko 3.2 artikuluan ezarritako bi urteko nahitaezko atsedena-dia betetzearen ondorioetarako.

Luzapeneko egoerak hamabi hilabete iraunen du gehienez ere, eta aldi bakar batean edo partzialetan bete ahalko da. Horretarako baldintza izanen da beste funtzionario izangairik ez egotea prestakuntza-aldirako. Luzapeneko aldi hori bukatutakoan, funtzionarioa automatikoki itzuliko da zerbitzu berezietako egoera deklaratu ziotenean betetzen ari zen lanpostuko jarduneko zerbitzura, eta hori ez da eragozpen izanen berriro ere luzapenera dei dakion, baldin eta luzapenaren epea agortu ez badu eta prestakuntza-aldirako beste funtzionario izangairik ez badago. Kasu horietan, funtzionarioak bere jatorrizko lanpostuan ematen duen denbora zenbatuko da Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamenduko 3.2 artikuluan ezarritako bi urteko nahitaezko atsedena-dia betetzearen ondorioetarako.

Funtzionarioak bi urteko nahitaezko atsedena-dia bete baldin badu eta prestakuntzarako deitua baldin bada, bi urteko prestakuntzara-aldi berri bat hasiko du, nahiz eta osotara bete gabe eduki luzapeneko hamabi hilabeteak.

2. Prestakuntzako zerrenda ezberdinetan dauden izangaiak.

Prestakuntzako zerrenda bat baino gehiagotan –kidego ezberdinetako zerrendetan –dauden izangaiak ezin izanen dute gaintitu prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoerarako aurreikusitako bi

urteko gehieneko epea, prestakuntzako aldiak batuta, baina hori ez da eragozpen izanen hamabi hilabeteko luzapena izateko aukera edukitzeko, baldin eta prestakuntza aldirako beste funtzionario izangairik ez badago kasuko zerrenda horretan.

### 3. Deien ordena.

Izangaiei dei eginen zaie beharrianak sortu ahala, zerrendako hurrenkera errespetatuz.

Zerbitzu berezietako aldi bakoitzaren iraupena laburragoa baldin bada ezarritako gehieneko epea baino, aldia amaitzean izangaia zerrendako lehen tokira pasako da, epe hori bete arte, salbu eta hurrenkeran lehentasuna duen beste pertsona bat kasu berean dagoenean. Irizpide bera baliatuko da luzapenetan.

Lanpostu bat prestakuntza aldiari betetzeko izendapenari uko egiten bazaio, edo prestakuntza aldiari jarduteari norbere gogoz uzten bazaio, gainerako izangaiei dei eginen zaie, zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituz, eta prestakuntza aldiari uko egin dion langilea zerrenda horretako azken tokira pasako da.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri ematea Zerbitzu Orokorretako buruari eta Langileen Batzordeari.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 23an

Legelari nagusia: Pablo Díez Lago

